

IGORREKO HIZKERAREN AZTERKETA DIALEKTOLOGIKOA

Tesiaren egilea: Aitor Iglesias Chaves

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

Tesi-zuzendariak: Gotzon Aurrekoetxea Olabarri

Tesiaren laburpena:

Tesi honetan Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa egiten da. Atal nagusi bi dauzka: deskribapen arauemailea eta azterketa dialektologikoa. Batetik, Igorreko hizkeraren inbentario fonetiko, morfologiko eta sintaktiko zehatza egiteaz gain, hura gobernatzen duten arauen berri ere ematen da. Arau horiek hierarkia prosodikoaren marko teorikoaren barruan aztertzen dira. Bestetik, azterketa dialektologikoan, Igorren lortutako datuetatik abiatuz, Arratiako mendebaldeko muga zehazten da. Horretarako marko teoriko bi aplikatzen dira: ohiko dialektologia kontrastiboa eta azterketa dialektometrikoa. Bien emaitzak alderatzen dira eta teoria bakoitzaren kritika egiten da.

Helburu horiek lortzeko lau urrats egin dira: 1) Corpora jasotzea. 2) Gramatika-arauak zehaztea. 3) Gramatika deskribatzea. 4) Arratiako barietatearen mendebaldeko muga zehaztea.

Lan honek, sarreraz gain, sei atal dauzka eta eranskin bi. Lehenengo laurak gramatikari dagozkionak dira: fonologia, izen-sintagma, aditz-sintagma, sintaxia, eta elkarketa eta eratorpena. Zazpigarrenean emaitzen eta ondorioen berri ematen da. Zortzigarren atala bibliografiari dagokio eta eranskin biak corpusari berari: lexioia eta testuak. Eta amaitzeko, ondorioak eta aipatutako bibliografia.

Fonologiaren atalak, arau fonologikoen azterketa du helburu: unitate segmentalen inbentarioa eta arau fonologikoen azterketa. Horretarako, lehenik, fonemen inbentarioa ematen da, eta, ondoren, gauzatzen diren arauak; ostean, silabaren inbentarioa eta maila horretan gauzatzen diren arauak; gero, hitz fonologikoa aztertzen da, eta puntu honetan bokal-eremuko arauak eta kontsonante-eremuko arauak bereizten dira. Horietan, arau fonologikoak, morfofonologikoak eta morfemamugen gaineko arauak aztertzen dira. Amaitzeko, suprasegmentaletan, azentuaren deskribapena eta berau gobernatzen duten arauak zehazten dira.

Izen-sintagmaren atalean izena, adjektiboa, deklinabidea, izenordainak, determinatzaileak, hitz eratorriak eta eratorpen-morfemak, eta azkenik, hitz elkartuak

aztertzen dira, baina bereziki deklinabidearen kasu-markak ezartzeko gauzatzen diren arau morfologikoei erreparatzen zaie.

Aditz-sintagmaren atalean aditza eta adberbioa aztertzen dira. Aditzaren atalean, aditz jokatugabeen eta aditz jokatuen erabilera zehaztea da helburua. Adberbioaren atalean, berriz, adizlagunena eta aditzondoena.

Sintaxiaren atalean helburua da esaldien egitura finkatzen duten arauak ematea. Egitura hori, multzo nagusi bitan banatzen da: perpausak, bakunak eta elkartuak, eta lokailuak.

Elkarketa eta eratorpenaren atalean morfologia lexikoa aztertzen da, hau da, hizkera honek lexiko berria sortzeko dauzkan bideak: elkarketa eta eratorpena. Zelan sortzen diren hitz, aditz eta izenondo elkartuak aztertzen da, eta zeintzuk diren eratorpenean erabiltzen diren aukerak: aurrizkiak, artizkiak eta atzizkiak.

Emaitza eta ondorioen atalean, alde batetik, emaitzetan, Igorreko hizkeran gauzatzen diren arauen laburpena ematen da; eta beste alde batetik, ondorioetan, egiaztatzen da hipotesia, Zeberiko hizkera Arratiako barietatekoa dela.

Ondorengo atalean, lan honetan zehar aipatu den bibliografiaren eta webguneen berri daukagu.

Amaitzeko, eranskin bi ditugu corpusaren lexikoiarekin eta jasotako testuen lagin batzuekin. Corpus hau azterketaren oinarria da eta bertan agertzen diren ezaugarriak dira tesian zehar agertzen direnak.